



Bilbao Orkestra  
Sinfonikoa

DENBORALDIA ————— 24 ————— TEMPORADA  
25

abenduak 12-13 diciembre



Patrocinador / Babeslea

Occident  
Fundación

© Benjamin Fallogea



# Honela mintzatu zen Zaratustra

L. van Beethoven: *Egmont, Obertura Op. 84*

W.A. Mozart: *23. kontzertua piano eta orkestrarako La Maiorreal K. 488*

R. Strauss: *Also sprach Zarathustra Op. 30*

Jonathan Mamora, pianoa/piano

Pablo González, zuzendaria/director

Palacio Euskalduna Jauregia

osteguna | jueves 19:30 h  
ostirala | viernes 19:30 h



Desde 23,50 €-tik aurrera  
Gaztea (<30):  
desde 11,70 €-tik aurrera



Taquilla Euskaldunako lehiatila  
[www.bilbaorquestra.eus](http://www.bilbaorquestra.eus)





**Jonathan Mamora, piano/piano  
Pablo González, zuzendaria/director**

I

L. VAN BEETHOVEN      Egmont, Obertura Op. 84  
(1770 - 1827)

W. A. MOZART      23. kontzertua piano eta orkestrarako La Maiorrean K. 488  
(1756 - 1791)      Concierto nº 23 para piano y orquesta en La Mayor K. 488

- I. Allegro
- II. Adagio
- III. Allegro assai

Jonathan Mamora, piano

II

R. STRAUSS      Also sprach Zarathustra Op. 30  
(1864 - 1949)

Iraup. / Dur: 100' (g.g.b. / aprox.)



## Egitarauaren oharrak

### Iluntasuna eta argia

Gau honetako programa osatzen duten hiru lanek 100 urteko aldia hartzen dute (1786-1886). Urte horiek izan ziren, beharbada, gaur egungo errepetorio sinfonikorako urterik emankorrenak, eta aldi horretan idatziz ziren gure orkestrek gaur egun interpretatzen jarraitzen dituzten obren zati handi bat. Hain zuzen ere, klasizismoaren amaieratik Errromantizismoaren amaierara garamatzaten urteak dira. Aztergai ditugun hiru autoreak germaniarak dira (austriar bat, alemaniar bat eta Austrian bizi zen alemaniar bat), hau da, musikaren historia urte horietan, hain justu, gehien markatu zuen tradizioaren parte dira (bereziki orkestra handiarentzako egiten zen musika instrumentalaren historia, horixe baita orain aztergai duguna); era berean, historiaren beste garai batzuetan, pribilegio hori musikari franko-flamenkoei edo italiarrei egokitutu zitzaien.

Horrenbestez, errepetorio handiaren muinean bizi diren hiru obra entzungo ditugu; musikagileon hiru pieza nagusi eta guztiz helduak. Eta esan besterik ez dago musikagile haietako bi, Mozart eta Beethoven, izen sakratuak direla musika klasikoa deritzonaren historiarako; haien horma-hobiak erretaularen erdian egongo lirateke, Bachenaren ondoan. Eta Richard Strauss ez litzateke oso urrutit geratuko (berari galduetutu ahal izango bagenio, ziur aski Mozart aitaren eskuinean eserita agertuko litzateke).

Kontzertu serioa da, ikaragarria, musikari handiak berriz ikusteko eta berauen handitasunaz ostera ere txunditura geratzeko prest dagoen zaleak errespetu handiz espero dituen horietakoa.

Nolabait, eskainiko zaizkigun hiru piezek iluntasun eta argi kontrasteak proposatzen dizkigute. Esplizituenetan, noski, Straussen Zarathustraren hasierako egunsentia da; izan ere, hamaika aldiz entzungo genuen pieza hau, baina horrek ez du esan nahi azken entzunaldiak zurrara gutxiago eragingo digunik, batez ere, gaur bezala, haren bibrazio kosmikoa zuzenean sentitzeko aukera ezin hobea dugunean. Baina Mozarten kontzertuaren bigarren mugimenduak, ia prerromantikotzat jo genezakeen une musicalak, atmosfera aldaketa sotilekin jolasten du, ezkutatzen den argi mehe batekin jostatzen da, halako moldez non, aldizka, bere izaera ilun-argia erakusten baitu. Aldiz, Beethovenen Egmont obertura sendoak borroka-, heriotza- eta garaipen-istorio bat kontatzen digu; musikagileak istorio hori sinbolizatzen du, erabateko iluntasunaren (isiltasunaren) baliokide musikaletik obraren amaieran orkestra batek piztu diezagukeen argirik indartsuenera igaroz.

Horrek esan nahi du gaurko kontzertuak aukera emango digula Mozarten iradokizun delikatutik Beethovenen dramatismo sendora eta Straussen antzerkitasun bikainera doazen intentsitate-mailetako adierazpen-kontrasteak esperimentatzeko. Hainbestez, kontzertu serioa izateaz gain, hagitz adierazgarria ere bada. Errespetuz ez ezik, emozioz ere itxaron behar da. Nahiko nuke musika handia maite dugunok estereotipo hau betiko gainetik kenduko bagenu: giza gogoaren obrarik handienei zor zaien seriotasuna eta begirunea adierazpen-indarrari kontrajartzen zaizkio (eta adierazpen-indar horrek ematen die, hain zuzen ere, handitasun hori). Izan ere, horrelako musikek ez dute multimedia-ikuskizun handiekin apaindu beharrik, ezta tonaka dezibeliorekin edo milioi anitzeko argi-jokoekin ere, berez eta baliabide sinfonikoen bidez soilik, emoziorik indartsuenak, iluntasunik beltzena eta argirik distiratsuena gogora ekartzeko gai baitira.

Baina aipa ditzagun, zehatzago, programa osatzen duten obrak. Beethovenen Egmont obertura izango dugu kontzertuan sartzeko bidea. Maisuaren oberturen artean gehien interpretatzen denetako bat da, eta

## Notas al programa

### Oscuridad y luz

Las tres obras que componen el programa de esta velada abarcan un período exactamente de 100 años (1786-1886), posiblemente los más fecundos para el repertorio sinfónico actual, durante los cuales se escribieron una gran parte de las obras que nuestras orquestas siguen interpretando hoy en día. Son los años que conducen del final del Clasicismo al final del Romanticismo. Los tres autores que nos ocupan son germanos (un austriaco, un alemán y un alemán afincado en Austria), es decir, forman parte de la tradición que más profundamente marcó la historia de la música precisamente en esos años (especialmente de la música instrumental para gran orquesta, que es la que nos ocupa), igual que en otros períodos de la historia ese privilegio correspondió a los músicos franco-flamencos o a los italianos.

Así que vamos a escuchar tres obras que habitan en el meollo del gran repertorio; tres piezas mayores y plenamente maduras de sus autores. Y ya sólo falta decir que dos de ellos, Mozart y Beethoven, son nombres sagrados para la historia de la llamada música clásica; sus hornacinas estarían en el centro del retablo junto a la de Bach. Y Richard Strauss no quedaría muy lejos (si le pudiéramos preguntar a él mismo, seguramente aparecería sentado a la derecha de Mozart padre).

Es un concierto serio, imponente, de los que el aficionado espera con respeto, dispuesto a revisitar a los grandes y a dejarse impresionar una vez más por su grandeza.

De algún modo las tres piezas que se nos van a ofrecer nos proponen contrastes de oscuridad y luz. El más explícito, desde luego, es el amanecer inicial del Zarathustra de Strauss, no por mil veces escuchado menos impresionante, sobre todo cuando se tiene la ocasión, como hoy, de sentir en vivo su vibración cósmica. Pero el segundo movimiento del concierto de Mozart, un momento casi podríamos decir que prerromántico, juega con sutiles cambios de atmósfera, una luz tenue que se oculta y se muestra alternativamente. Mientras que la poderosa obertura Egmont de Beethoven cuenta una historia de lucha, muerte y triunfo que el autor simboliza con el paso desde el equivalente musical de la oscuridad total (el silencio) a la luz más potente que puede encender una orquesta en el final de la obra.

Esto quiere decir que el concierto de esta noche nos proporcionará ocasiones de experimentar contrastes de expresión en grados de intensidad que van desde la delicada sugerencia de Mozart al poderoso dramatismo de Beethoven y la grandiosa teatralidad de Strauss. De modo que no sólo es un concierto serio; es también un concierto fuertemente expresivo. No sólo hay que esperarlo con respeto; también con emoción. Ojalá los amantes de la gran música nos quitémos de encima para siempre el estereotipo: como si la seriedad y el respeto debidos a las que son algunas de las grandes obras del espíritu humano estuvieran reñidos con la fuerza expresiva que es precisamente la que les otorga esa grandeza. Porque a músicas como éstas no les es necesario adornarse con grandes espectáculos multimedia, toneladas de decibelios o millonarios juegos luminosos: por sí mismas y simplemente a través de los recursos sinfónicos son capaces de evocar las más poderosas emociones, la oscuridad más negra y la luz más brillante.

Pero refirámonos ya, más en concreto, a las obras que componen el programa. La obertura Egmont de Beethoven nos introduce en el concierto. Se trata de una de las más interpretadas entre las oberturas



ia beti bere atzetik datorren musikatik independizatzen da. Horren arrazoia obertura hau Johann Wolfgang von Goetheren Vienako estreinaldian izenburu bereko drama laguntzeko musika intzidental gisa sortu izana da. Musika-multzo hori 1810 eta 1811 artean konposatu zen, Beethovenek Austriako hiriburuaren aintzatespen aski handia zuenean; horrek, noski, enkargua egitea erraztu zuen. Berarentzat aukera bikaina izan zen, Goethereniko mirespen sakona sentitzen zuelako (handik gutxira ezagutu zuen idazlea, aurrez aurre), baina baita antzezlanaren gaia bere ideia politiko eta pertsonalekin bat zetorrelako ere.

Goethen kontatzen digun istorioa Lamoral de Egmont zeritzon kondearen benetako ezbiharrean oinarritzen da. XVI. mendean zehar, konde hau Felipe II.aren armadetan zerbitzatu zuen holandar militar ospetsua izan zen, espinpiar koroa Flandes eta Herbehereetako lurraldeetan nagusi zen garaien, ospe eta heroi fama handia erdietsiz. Baina protestante holandarrentzako tolerantzia erlijiosoaren alde egin zuenez, protestanteak erreprimitzeko erregeak Holandara bidalitako Albako dukearen aurkako borrokari ekin zion. Hainbestez, kondea atxilotu eta exekutatu egin zuten. Horregatik guztiagatik, haren figura erreferente bilakatu zen Holandako independentziaren aldeko borrokan. Goetheren antzezlanak istorio hori hartu zuen oinarri, aski modu libream; izan ere, Goethen istorio hori apaindu egin zuen eta Egmont gaztetu bat (antzezlanean benetan baino hogei urte eta zortzi seme-alaba gutxiago-rekin eta maitale bat gehiagorekin hiltzen den pertsona bat) benetako pertsonaia errromantiko bihurtu zen, zeinen sakrifizioa borroka iraultzai-learen eragile bilakatuko baitzen.

Planteamendu hori ezin iradokigarriagoa izan zitzaison Beethoveni, irudi heroikoengatik txunditurik baitzegoen beti, eta ideal ilustratuen eta askatasunaren aldeko borrokaren defendatzalea sutsua baitzen. Goethe berehalako jabetu zen musikagilearen inspirazio bikainaz, eta idazlea pozik agertu zen emaitzarekin; obra, guztira, hamar piezaz osatua dago; horietako batzuk bokalak ziren, idazleak berak adierazitako bilbe-guneetan txertatu beharrekoak. Izan ere, Goethen aurrez aurreikusia zuen musikaren presentzia antzezpenean (eta Beethovenek konposatutako musika ez zen lehena izan, nahiz eta, praktikan, gaur egun konposizio bakarra izango balitz legez geratu). Izan ere, Egmont kondearen amaierako hitzaldi hunkigarriaren ondorik, exekuziorako bidean zihola, garaipenaren sinfonia bat entzun behar zela adierazten da, haren sakrifizio alai eta duinaren ondoren pertsonaiaren ideien hil osteko garaipena sinbolizatzen duena.

Obertura hau, gaur egun gertatuko den legez bananduta entzun ohi dena, laburra da, baina historiaren zentzu osoa laburbiltzeko gai da, zehaztasun miresgarritzera, batik bat, konpositorearen estilo guztiz helduaren indar osoarekin (oberturaren sorkuntza, kronologikoki, seigarren eta zapigarraren sinfonien artean kokatzen da, Beethovenen nortasun musikalera erabat garatua zegoelarik bere adinaren erdialdeko urterik emankorrenetan). Izan ere, dramari buruzko historia kontatzen digun avant la lettre poema sinfoniko laburtzat har dezakegu, baina ez hitzegi.

Eta hemen ikus daiteke iluntasunetik argirako bidea; obra sarrera geldo batekin hasten da: akorde ilun eta astunek Spainiako koroak Egmonten aberriari eragiten dion zapalkuntza islatzen dute; zenbaitek iradokitzen dute, eta ez dirudi burugabea, erritmoa zarabanda dakarrela gogora, hots, garai hartan Spainian gustukoa zen dantzabereizgarri bat (Felipe II.aren garaikoa, ez Beethovenen garaikoa). Iluntasunean murgildurik, musikak bere bidea bilatzen du harik eta sekzio nagusi azkarra iritsi arte, ohikoa den bezala sonata forma labur batean idatzia; egitura horren ezaugarri den bi gai nagusien kontrasteak aukera ematen dio Beethoveni lehenaren dinamismo indartsua,

del maestro y se independiza casi siempre del resto de la música que la sigue, concebida como música incidental para acompañar el drama del mismo título de Johann Wolfgang von Goethe en su estreno en Viena. El conjunto se compuso entre 1810 y 1811, cuando Beethoven ya gozaba de un importante reconocimiento en la capital austriaca, lo que facilitó que se le hiciera el encargo. Para él fue una gran oportunidad, ya que sentía una profunda admiración por Goethe, a quien conocería personalmente poco tiempo después, pero también porque el tema de la obra teatral encajaba perfectamente con sus ideales políticos y personales.

La historia que narra Goethe se basa en la peripecia real del conde Lamoral de Egmont quien, durante el siglo XVI fue un reputado militar holandés que sirvió en los ejércitos de Felipe II en el tiempo en el que la corona española dominaba los territorios de Flandes y los Países Bajos, alcanzando gran renombre y fama de héroe. Pero su defensa de la tolerancia religiosa para los protestantes holandeses lo llevó al enfrentamiento con el Duque de Alba, enviado por el rey precisamente para reprimirlos, concluyendo con su arresto y ejecución. De ahí que su figura se convirtiera en referente para la lucha por la independencia holandesa. La pieza teatral de Goethe se inspira libremente en esta historia para adornarla y convertir a un rejuvenecido Egmont (que en la obra muere con veinte años y ocho hijos menos y una amante más que lo que realmente ocurrió) en un auténtico personaje romántico cuyo sacrificio se convertirá en el detonante de la lucha revolucionaria.

Este planteamiento no podría haber sido más sugestivo para Beethoven, siempre impresionado por las figuras heroicas y defensor de los ideales ilustrados y la lucha por la libertad. Su inspiración no pasó desapercibida al propio Goethe, que se mostró satisfecho con el resultado, compuesto en total por diez piezas, algunas de ellas vocales, que debían insertarse en los puntos de la trama señalados por el propio literato, quien ya había previsto la presencia de la música en la representación (y la compuesta por Beethoven no fue la primera, aunque a estas alturas ya haya quedado en la práctica como la única). De hecho, tras el emotivo discurso final de Egmont camino de su ejecución, se indica que debe sonar una sinfonía de la victoria, que simboliza el triunfo póstumo de las ideas del personaje tras su alegre y orgulloso sacrificio.

La obertura que, como sucederá hoy, suele escucharse separada, es breve pero capaz de condensar todo el sentido de la historia con admirable concisión y, sobre todo, con toda la fuerza del estilo plenamente maduro del compositor (su creación se sitúa cronológicamente entre las sinfonías sexta y séptima, ya plenamente desarrollada la personalidad musical de Beethoven en sus años centrales y más productivos). De hecho, podemos considerarla como un breve poema sinfónico avant la lettre que nos cuenta la historia del drama, si bien no de modo literal.

Y aquí es donde se puede rastrear el paso de la oscuridad a la luz: la obra comienza con una introducción lenta: sombríos y pesados acordes retratan la opresión que ejerce la corona española sobre la patria de Egmont; hay quien sugiere, y no parece descabellado, que el ritmo sugiere el de una zarabanda, una danza característica del gusto español de la época (de la época de Felipe II, no de la de Beethoven). Sumida en la oscuridad, la música va buscando su camino hasta la llegada de la sección principal rápida, escrita, como es habitual, en una sucinta forma sonata; el contraste de los dos temas principales, característico de dicha estructura, da la ocasión a Beethoven para contrapo-



heroien borroka irmoa irudikatzen duena, eta bigarrenaren mehatxu erasokorra kontrajartzeko, zeinak, maisutasun keinu batean, sarreraren hasierako akordeak berreskuratzten dituen.

Pieza kontraste horri etekina atereaz garatzen da, harik eta, keinu ia deskriptibo batean, boterearen zapalkuntza azpimarratzen duten akorde gaitzesgarriak Egmonten heriotza adierazten duen ezusteko isiltasunaren ostean entzuten diren arte, une horretan iluntasuna gailentzen dela baitirudi; hala ere, ilunpetik laster sortzen da argia: heroien martiritzak askatasunaren aldeko borroka pizten du, eta obra Beethovenek konposatu zituen garaipen-amaiera bizienetako batera bideratzan da; Goethek eskatutako eta oberturan iragarritako garaipenaren sinfonia da, antzezpen osorik egiten denean antzezpen horren amaieran errepikatzen dena.

Hasiera bikain honen ondoren, lurralte bareago batera joango gara, pianorako Mozarten La mayorreko 23. Kontzertuari esker. Kasu honetan, argi-kontrasteak ez dira antzerki-istorio bakar batetik ere etorriko; izan ere, ez da inolako istoriorik sortuko, musikatik eta beronen kantuen joko asketik eratorritako istorioa izan ezik. Hain justu, obra klasiko baten aurrean gaude, eta, horrenbestez, bertan funtsaren eta formaren identifikazioa erdietsi nahi da, ezein musikarik Salzburgoko jeinuak baino hobeto taxutzea inoiz ere lortu ez duena alegia.

Hori bai: kontzertu hau jada bere azken aldi sortzaileari dagokio, eta azken aldi honetako lanek, bizitzak luzapenik eman izan balio maisua nora irits zitekeen iradokitzeaz gain, zenbait ezaugarri erakusten dizkigute, prerromantikoak izan zitezkeenak, baina, zalantzarak gabe, autore helduago batu dagozkio, bere garaiai aurrea hartzeko gai den eta, oso sotilki, berak urratu ezin izango zituen zenbait bide iradokitzeo gai den autore bat alegia. Hori ere, onar dezagun, ez da bitxikeria; XVIII. mendearen amaierako musikak jada iragartzen zuen literaturan are argiago agertzen hasia zen aldaketa bat, eta gure adiskide Goethe, hain zuzen, horren adibide ona zen. Mozartek ere parte hartu zuen hori guztia adierazten zuten korronteetan, hala nola Sturm und Drang mugimendu ospetsuan, kasu honetan aplikagarria ez dena (20. kontzertuan eta 25. sinfonian arakatu genezake korronteon oihartzun hori), edo Empfindsamkeit izeneko sinfonian (hitz hori, gutxi gorabehera, sentimentalismo gisa itzul dezakegu); izan ere, sinfonia hori literaturaren esparruan sortu zen, baina pintura arloan eta musika arloan ere oihartzuna izan zuen. Jar dezagun horren adibidetzat Johann Sebastian Bachen semeen musika, zeinetako bat, Johann Christian, Londresen ezagutu baitzuen, Mozartek haurtzaroan eta nerabezaroan haur miragarri gisa egin zituen bidaietan zehar. Kontua da ezen, artean estetika klasiko estuaren barruan jardunik ere, Argien Mendeko berezko galga iluminista eta arrazionalistaren izenean ezkutuan edo lotuegi egon ziren sentimenduei adierazpide bat bilatu behar zitzaiela; ekar ezazue gogora Jane Austen eleberriren bat, eta ulertuko duzue zertaz ari naizen.

Horrezaz gainera, gure autorea, obra hau idatzi zen garaian (1786. urtean), nagusiki operan murgildua zegoen, Figaroren ezteiak sortze-ko prozesu betean baitzebilen. Horrek, dudarik gabe, eragina izan zuen bere estiloan, eta, horrelako obra instrumental hutsetan ere, adierazkortasun nabarmenagoa ematen dio, bete-betean, halako moldez non partiturak, beti ere modu hagitz dotorean, hunkigarriak diren keinuz zipritzintzen baititu. Kontzertuan bertan jabetuko gara keinu horiez, arinagoak baitira mugimendu azkarretan, baina bereziki nabarmenak erdiko adagio zoragarrian (komentatu nahi nizueke ezen, diskreziola bazter utzita, Mozarten kontzertu guztiak berau dudala mugimendurik gogokoena..., eta pentsa Mozarten obran zenbat mugimendu bitxi daukagun aukeratzeko).

ner el poderoso dinamismo del primero, que representa la decidida lucha del héroe, con la amenaza agresiva del segundo, que recupera, en un gesto de maestría, los acordes iniciales de la introducción.

La pieza se desarrolla sacando partido de este contraste hasta que, en un gesto casi descriptivo, los ominosos acordes que subrayan la opresión del poder van seguidos por un inesperado silencio que indica la muerte de Egmont, momento en que la oscuridad parece triunfar del modo más patente; sin embargo, pronto de la penumbra surge la luz: el martirio del héroe ha despertado la lucha por la libertad y la obra se encamina a un final triunfal de los más intensos que compuso Beethoven; se trata de la sinfonía de la victoria solicitada por Goethe, anunciada en laertura y que se repite al final de la representación cuando ésta se realiza completa.

Tras este brillante inicio nos retiraremos a un territorio más sereno gracias al Concierto para piano nº 23 en La mayor de Mozart. En este caso, los contrastes luminosos no van a proceder de ninguna historia teatral; de ninguna historia, de hecho, salvo la de la propia música y el libre juego de sus temas. Nos encontramos, en efecto, ante una obra clásica y, por lo tanto, en ella se persigue la identificación de fondo y forma, algo que nunca ningún músico habrá logrado mejor que el genio de Salzburgo.

Eso sí: este concierto pertenece ya a su última etapa creativa y las obras de este período final, aparte de sugerirnos a dónde podría haber llegado el maestro si la vida le hubiera dado una prórroga, muestran ciertos rasgos que podría ser arriesgado calificar de prerrománticos, pero que indudablemente corresponden a un autor más maduro, capaz de adelantarse a su tiempo y aventurar, muy sutilmente, algunos caminos que ya no podrá recorrer él mismo. Tampoco, admitámoslo, es esto una rareza; la música del final del siglo XVIII ya anuncia un cambio que la literatura estaba empezando a manifestar aún más claramente, y nuestro amigo Goethe era precisamente un buen ejemplo. Mozart no fue ajeno a corrientes que apuntaban a ello, como el famoso movimiento Sturm und Drang, que no es de aplicación en este caso (podríamos rastrearlo en el concierto número 20 y en la sinfonía número 25), o la Empfindsamkeit (que podemos traducir como, más o menos, sentimentalismo) nacida también en el ámbito literario pero con ecos en la pintura y en la música, pongamos por caso en la de los hijos de Johann Sebastian Bach, a uno de los cuales, Johann Christian, Mozart había conocido y frecuentado en Londres durante sus viajes de infancia y adolescencia como niño prodigo. Se trata, simplemente, de buscar un cauce de expresión, dentro aún de la comedida estética clásica, a los sentimientos que, en nombre de la contención iluminista y racionalista propia del Siglo de las Luces, habían permanecido ocultos o demasiado sujetos; piensen en una novela de Jane Austen y lo tienen.

Además, nuestro autor, en la época en la que se escribió esta obra (1786), estaba dedicado de manera prioritaria a la ópera (se encontraba en pleno proceso de creación de Las bodas de Fígaro) y esto indudablemente influye en su estilo, dotándolo, incluso en obras puramente instrumentales como ésta, de una expresividad más a flor de piel y salpicando las partituras de gestos siempre muy elegantemente emotivos. Los apreciaremos en el concierto, más tenues en sus movimientos rápidos, pero especialmente notables en el maravilloso adagio central (si me permiten la indiscreción, mi movimiento favorito de todos los conciertos de Mozart... y fíjense si hay joyas para elegir).



Pintzelkada patetiko xamar horiek iluntzen dute, une batez, La Maiorrean idatzita dagoen kontzertuaren tonalitate argitsua, eta, hain justu ere, beroriek ematen diote mugimendu geldo horri bere giro txit malenkoniantzu eta lasaia, konpositorearen opera garaikideetako edozein ariarik hoherenen parekoa (berbarako, hor ditugu Porgi amor, Figaroren ezteiak operako Kondesaren aria edo, urte batzuk geroagokoa den Ach, ich fühl's aria ezin ederragoa, Txirula magikoa operako Pamina pertsonaiari dagokiona).

Hala ere, ez dut zuon arreta mugimendu zentralean soilik zentratu nahi. Beste bi mugimenduak ere bikain-bikainak dira. Lehen begiratuan, garai hartako kontzertuen ildo estandarrak betetzen dituzte; jendeari atsegin emateko eta konpositoreari eta interpreteari beharrezko diru-sarrerak ziurtatzeko sortutako pieza da. Mozartek 1786ko udaberrian harpidetza bidez eskaini zuen kontzertuetako bat da (urte horretako martxoaren 2an estrenatua). Konpositorearen handitasuna egitura klasiko ongi antolatuetan uretan arrain gisa mugitzeko abilezian eta, egiturok deskonposatu gabe, adierazkorra sun harrigarri batez hornitzeko gaitasunean datza. Hori dela eta, gomendagarria da musika hau jakintzat ez ematea, nahiz eta anitz aldziz entzundakoa izan; arreta guztia musika horretan jartzea da giltza, lehen aldia balitz bezala. Horrela, berriro miretsiko dugu lehen abestia zein dotoreziaz lerratzen den eta musikak zubi txinpartatsuan zehar bigarren kantu gogoangularri, gozo eta delikatu bateraino zein orekaz eroaten gaituen. Begira orkestrazio zoragarriari, hau da, oharkabeen pasa dakigukeen beste elementu bati; jakina, bigarren zatian entzungo ditugun Straussen aparteko aurkikuntzak ikusgarria goak dira eta erraz uzten gaituzte aho zabalik, baina miresgarria da nola Mozartek, askoz ere baliabide murritzagoekin, kolore-aldaketa sotilak egiten dituen, batez ere haize-instrumentuekin, esaldi bat edo beste bat azpimarratuz, errepikatzen denean pixka bat eraldatuz...

Alde horretatik, obra honetan aukera interesgarri bat dago: ohiko oboe parearen ordez klarinete pare bat jartzea. Izen ere, azken hauek tinbre ilunagoa dute eta tinbre hori ez da hain sarkorra izaten, eta horrek, hagitz sotilki bada ere, kontzertu osoaren izaera zehazten du. Orkestrazioak distiran gal dezakeena berotasunean irabazten du. Horregatik, eta agian impresio pertsonala baino ez da, lehen mugimenduan, une askotan, ia kamera-pieza batez gozatzen ari garela begitantzen zaigu.

Klarinetean eta gainerako haize-instrumentuen presentzia bereziki nabari da arestion aipatutako bigarren mugimenduko esku-hartze orkestraletan. Mugimendu hau 'siziliana' erako pianoarekin soilik hasten da; ez dakit zer duen erritmo honek, baina musikaren historian ahaztezinak diren une gogoangularri batzuk sorrarazi ditu (gogora ezazue Bachen txirula eta klaberako sol minorreko siziliana edo Fauréen Pelléas et Melisande, txirulararen protagonismoarekin hori ere). Eta une horiek, eta Mozarten une hau ere, malenkoniar aldarea bereziki gozo eta lasai bati lotuak daude.

Ohikoa izan ez arren kontzertuaren tonalitate nagusiarekin koherentea den tonalitatean idatzi zen, Re minor eutsian alegia; tonalitate hori kromatiko xamarrar da, haren ahultasun kontrolatua areagotze aldera; zentzu horretan, pianoaren lehen esku-hartze bakartia tonalitate akuturako igoera neketsu batekin eta erorketa adoregabek batekin amaitzen da. Une horretan, orkestra osoak parte hartzen du bakarriari erantzunez eta esaldi eder eta hunkigarri bat ahoskatuz, beheranzko motibo baten errepikapena oinarri hartuta; lehenago mugimendu honekiko nire estimua aitortu dut, bai, eta esan behar dut honako une musical hau dela gehien liluratzten nauena.

Son esas pinceladas levemente patéticas las que oscurecen por momentos la luminosa tonalidad del concierto, escrita en La Mayor, y los que dotan al citado movimiento lento de su dulcísima y serena atmósfera melancólica, comparable a cualquiera de las mejores arias de las óperas contemporáneas del compositor (por ejemplo, Porgi amor, aria de la Condesa de Las bodas o, unos pocos años más tarde la bellísima Ach, ich fühl's de Pamina en La flauta mágica).

No quiero, no obstante, centrar su atención sólo en el movimiento central. Los otros dos son igualmente magníficos. En un primer vistazo cumplen perfectamente con los estándares de los conciertos de la época; no deja de ser una pieza concebida para agradar al público y asegurar al compositor e intérprete unos necesarios ingresos. Es uno de los conciertos que Mozart ofreció por suscripción en la primavera de 1786 (estreñido el 2 de marzo de ese año). La grandeza del autor estriba en la capacidad para moverse como pez en el agua en las bien organizadas estructuras clásicas y, sin descomponer el gesto, dotarlas de una expresividad asombrosa. Por ello es recomendable no dar la música por sabida, por mucho que la hayamos escuchado con frecuencia; poner toda la atención en ella como si fuera la primera vez. Así, nos volverá a maravillar la elegancia con la que casi se desliza el primer tema y con cuánto equilibrio nos conduce la música a través del chispeante puente hasta un memorable segundo tema, dulce y delicado. Fíjense en la deliciosa orquestación, otro elemento que, por consabido, puede pasarnos desapercibido; desde luego que los hallazgos extraordinarios de Strauss que escucharemos en la segunda parte son más espectaculares y nos dejan fácilmente con la boca abierta, pero es admirable cómo Mozart, con medios mucho más reducidos, introduce sutiles cambios de color sobre todo con los vientos, subrayando una u otra frase, transformándola levemente cuando se repite...

En este aspecto hay una interesante elección en esta obra: la de sustituir la habitual pareja de oboes por una de clarinetes. El timbre más oscuro y menos penetrante de éstos determina, aunque sea muy sutilmente, el carácter de todo el concierto. Lo que la orquestación puede perder en brillantez lo gana en calidez. Por eso, y quizás es sólo una impresión personal, hay muchos momentos en el primer movimiento en los que nos parece estar disfrutando de una pieza casi de cámara.

La presencia protagonista de los clarinetes y del resto de los vientos se aprecia especialmente en las intervenciones orquestales del ya citado segundo movimiento. Éste se inicia con el maravilloso solo del piano en forma de siciliana; no sé qué tiene este ritmo que ha producido algunos momentos inolvidables en la historia de la música (recuerden la siciliana en sol menor para flauta y clave de Bach o la de Pelléas et Melisande de Fauré, también con protagonismo de la flauta). Y son momentos, también éste de Mozart, asociados a una variante particularmente dulce y serena de la melancolía.

Escrita en la tonalidad poco común, pero coherente con la principal del concierto, de fa sostenido menor, levemente cromática para acentuar su controlada languidez, la primera intervención solitaria del piano concluye con un penoso ascenso al agudo y una caída desalentada. Es entonces cuando la orquesta completa interviene respondiendo al solista y pronunciando una hermosísima y emotiva frase basada en la repetición de un motivo descendente; si antes confesé mi aprecio por este movimiento es este momento musical el que más poderosamente me cautiva.



Bakarariaren eta orkestraren arteko elkarriketak, betiere zur-instrumentuen protagonismoak nabarmenduta eta soken eta tronpen berotasunez babestuta, mugimendu osoan jarraitzen du; erdiko aldean, berriz, iluntasun-aldaketa gertatzen da, aipatu dugun bezala, baina pieza hasierako tristura oso gozora itzuliz amaitzen da. Manuel Machadoren bertso hauek ekarri nahi ditut gogora:

Me siento, a veces, triste  
 como una tarde del otoño viejo;  
 de saudades sin nombre,  
 de penas melancólicas tan lleno...

Horrek guztiak ez du zerikusirik hirugarren mugimendu txinpartatsuarekin, finale klasikoaren funtzio distiratsu eta bertutetsua ere dotoreziaz betetzen baitu, baina hortik harago ere baoa; begira ezazue orkestra-erakusketa hasieran, Mozarten asmamen distiratsuaz ahalik eta gehien gozatzeko aukera ematen duena. Asmamen apart hori kaleidoskopio batean bezala ugaltzen da sinkopen eta azentuazioen joko erritmikoei esker, haize-instrumentuen esku-hartze bizkorrek sortzen dituzten kolore-aldaketa azkarrei eta batzuen eta besteen arteko musika-gaien trukeari esker. Bainan une malenkoniasuak adierazteko abagunerik ere izango da, une batez paisaia ilunarrazten duten horietakoak. Orkestraren esku-hartzea ez da inoiz anekdotikoa soilik izaten, aberastasunik eta barietaterik gorenak eskaintzen baititu, bakarriaren protagonismoa ezkutatu gabe, baina berarekin hitz eginez ganbera-joko batean bezala. Une liluragarria da, azken batean, eta arreta osoa jartzea merezi du, musika polit edo atsegina gisa soilik gozatzeko arriskurik ez izateko. Urregintza delikatueneko pieza da, eta entzuten dugun bakoitzean xehetasun berriak aurkituko ditugu pieza horretan.

Eta bitxigintza finetik Richard Straussen poema erraldoira igaroko gara, hots, Also sprach Zarathustra (Horrela mintzatu zen Zarathustra) obrara. Badakizunetik, izenburu hori du Friedrich Nietzsche liburu itzel batek, historiako filosoforik polemikoena den (eta seguruenik historiako filosofo gaizki-ulertuenetako baten) liburua izenburua alegia. Nietzsche filosofoa konpositorearen garaikidea izan zen, eta oraindik bizirk zegoen, osasun-egoera txarrean baina, obra 1886an sortu zenean.

Nondik hasi baina? Jatorrizko testua ia barneraezina da, ez hainbeste bere hedadura handiagatik, baizik eta bere interpretazioaren konplexutasunagatik; Nietzsche's pentsamenduaren laburpena da, baina ez dago testu filosofiko tekniko gisa idatzita, baizik eta estilo guztiz poetiko eta sinboliko batean, antzinako testu sakratuen antzo; horregatik, Nietzsche zoroastrismoaren, antzinako erlijio pertsiarraren, bultzatzalea izen zen Zarathustraren (Zoroastro) figura aukeratzen du. Bitxia bada ere, jakituriarekin duen identifikazioa eta izaera solemnea direla eta, Mozarten Txirula magikoa izeneko obran agertzen den Sarastroren erreferentzia egiten duen pertsonaia bera da figura hori.

Liburu liluragarria da, Nietzsche idazle gisa duen talentuari esker, eta haren irakurketak interpretazio pertsonalera gonbidatzen gaitu; XIX. mendearren amaieraren eta XX. mendearren hasieran gertatutako modernitatearen kultura-krisi handiaren barruan kokatzen da, Nietzsche beraren, Freudaren eta Marxen figurek markatuta. Gaingiroki, hauxe da filosofoaren tesia: miresgarri eta mingarri duen guziarekin bizitza besarkatu beharra, geroko bizitza baten esperantzaren babeste aldera mundutik ihes egin beharrean. Jainkoaren heriotza aldarrikatzeak esan nahi du gizakiak bere burua eta bere izaera bereganatzeko borroka baieztago egin behar duela, horrela balore guziak transbaloratz; Nietzsche erlijioa, metafisika eta

